

SALMENTARAKO ETA HORNIKETARAKO BALDINTZA OROKORRAK

AURKIBIDEA

0.	DEFINIZIOAK	1
1.	APLIKAZIOA	2
2.	APLIKAZIO EREMUA.....	2
3.	DOKUMENTAZIOA ETA KONFIDENTZIALITASUNA	2
4.	ENTREGA BALDINTZAK	2
5.	EROSLEAREN BETEBEHARRAK	4
6.	HORNITZAI LEAREN BETEBEHARRAK	4
7.	PREZIOAK, ORDAINKETA BALDINTZAK ETA BALDINTZA HORIEK BETETZEA	4
8.	OSAGAIEN GARAPENA, ALDAKETA EDOTA EGUNERAKETA	5
9.	SALGAIEN HORNIKETA, SALMENTA ETA SALGAI ZAHARKITUEN ERANTZUKIZUNA	5
10.	HORNITZAI LEAREN ERANTZUKIZUNA.....	6
11.	BERMEA	6
12.	HORNITZAI LEA DAGOKION ERANTZUKIZUNETIK SALBUESTEKO ARRAZOIAK ...	7
13.	SALMENTAK EDO HORNIKETA UKATZEA	8
14.	JAKINARAZPENAK.....	8
15.	LEGERIA APLIKAGARRIA.....	8
16.	JURISDIKZIOA.....	8
17.	ESPAINIERAZKO BERTSIOAREN LEHENTASUNA.....	9
18.	KLAUSULA GEHIGARRIA	9

DEFINIZIOAK

COPRECI KOOP.E., egoitza Aretxabaletan, GIPUZKOAN (ESPAINIA) duena, bai eta merkatuan COPRECI izenaz eta marka komertzialaz diharduten enpresa subsidiario guztiak ere, hemendik aurrera HORNITZAILEA deituko dira.

BEZEROA, HORNITZAILEARI ondasunak eta zerbitzuak erosten dizkiona, hemendik aurrera EROSLEA deituko da.

- I.- HORNITZAILEA etxetresna elektrikoek sektorerako osagaiak fabrikatu eta merkaturatzen dituen sozietate bat da.
- II.- EROSLEAK HORNITZAILEAREN piezak erosteko interesa dauka, gero bere etxetresnetan erabiltzeko.
- III.- Dokumentu honetan jasotzen diren Salmentarako eta Horniketarako baldintzak alde bien arteko salerosketako eragiketei ezarri behar zaizkie.
- IV.- Erosleak, merkatuan aukeratzeko duen askatasunaz baliatuta, Hornitzaileari eskariak egiten dizkionean, Baldintza hauek onartzen ditu argi eta garbi.

ESTIPULAZIOAK

LEHENA.- APLIKAZIOA

Baldintza Orokor hauek dira HORNITZAILEAREN eta EROSLEAREN arteko salmenta eragiketarako arautzeko erabili behar diren bakarrak, ez bada alde biek izenpetutako beste Hitzarmen idatzirik indarrean dagoela.

- Azken kasu horretan: Alde biek izenpetuta indarrean eta idatziz dauden beste Hitzarmen horietan Baldintza hauetan jasotako baldintzen aurka dagoen baldintzarik balego, alde biek berariaz izenpetutako Hitzarmenetan jasotakoek izango lukete lehentasuna.
- Alde biek izenpetuta indarrean eta idatziz dauden beste Hitzarmen horietan, hemen jasotako baldintzaren bat jasota ez balego, Baldintza hauetan jasotakoek izango lukete lehentasuna.

Eskari eta horniketa programetan alde aurretik inprimatutako edota bitarteko informatikoetan (WEB, etab.) argitaratutako EROSLEAREN beste edozein baldintzak, berariaz onartzen ez bada eta HORNITZAILEAK izenpetzen ez badu, ez du baliorik izango.

Aurretik adierazitako kasuetan izan ezik, eskari bat egitearekin ez da nahikoa EROSLEA Baldintza Orokorren jakinaren gainean egoteko eta den-denak onartzeko.

BIGARRENA.- APLIKAZIO EREMUA

Baldintza hauek Hornitzaileak fabrikatutako edo komertzializatutako produktu guztiei aplikatu beharko zaizkie, produktua fabrikatu edo saltzen den lekua edozein dela ere.

HIRUGARRENA.- DOKUMENTAZIOA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

HORNITZAILEAK Erosleari, edo alderantziz, bidaltzen dion dokumentazio guztia (produktu, harreman komertzial, plano, kalitate egiaztagiri, zehaztapen, Kontratuko eskaintza, prezio zerrenda, etab.) isilpean gordetzeko dokumentaziotzat hartuko da eta ezin izango zaie hirugarrenei eman aurretik beste aldearen onarpenik ez badago.

LAUGARRENA.- ENTREGA BALDINTZAK.

Alde biek idatziz aurkakoa erabaki ezean edo HORNITZAILEAK egindako eskaintzan berariaz aurkakoa adierazi ezean, hitzarmena izenpetzen duten alde biek erabakitzen dute osagaiak EROSLEAREN biltegieta entregatuko direla DDU baldintzetan (Incoterms 2000), eta ordainketa fakturaren datatik hasi eta 60 egunetara egingo dela.

BOSGARRENA.- EROSLEAREN BETEBEHARRAK:

EROSLEAK honakoa agintzen dio HORNITZAILEARI:

- 5.a) Bere esku jarri dion merkantzia onartuko duela, onartu ere, laugarren klausulan ezarritako baldintzenpean.
- 5.b) Hornitzaileak luzatutako fakturak garaiz ordainduko dizkiola.
- 5.c) Kasuan kasu behar duen laguntza emango diola.
- 5.d) Baldintza hauetan bere gain hartutako gainontzeko obligazioak beteko dituela alde bien arteko salerosketa eragiketetan.

SEIGARRENA.- HORNITZAILEAREN BETEBEHARRAK

Alde biek beste hitzarmen batzuetan erabaki ahal dezakete alde batera utzita, hemendik aurrera HORNITZAILEAK hitz ematen dio EROSLEARI HORNITZAILEAK onartu eta baieztutako eskariei dagokien merkantzia dokumentu honetan ezarritako baldintzetan emango dizkiola.

ZAZPIGARRENA.- PREZIOAK, ORDAINKETA BALDINTZAK ETA BALDINTZA HORIEK BETETZEA

- 7.a) Alde biek erabakitzen dute egindako salerosketen prezioa zein ordainketa baldintzak erosleak eskaria egin ondoren Hornitzaileak Erosleari idatziz jakinarazitako azkenak izango direla eta bat etorri beharko dutela HORNITZAILEAK EROSLEAREN izenean luzatzen duen fakturak agertzen direnekin.
- 7.b) Merkantzia saldu eta entregatzeko beharrezkoak diren lizentzia, zerga, tarifa, aduana zerbitzu eta gainontzeko baimen ofizialak, eroslearen kontura eta ardurapean izango dira.
- 7.c) HORNITZAILEAK jakinarazitako eskaintza, prezio eta salmenta baldintzak indarrean egongo dira HORNITZAILEAK beste batzuk jakinarazi arte, eta HORNITZAILEAREN esku egongo da baldintza horiek aldatzea egokituzat joz gero.

Aldaketa horiek gertatuz gero, EROSLEAK aldaketa horien berri izan eta 16. egunetik aurrera aplikatu beharko ditu esandako aldaketak bere eskarietan.

7.d) Ordainketak garaiz egingo dira, fakturen epemugan, eta fakturaren zenbateko osoa ordainduko da, HORNITZAILEAK horretarako adierazitako bankuko kontuan.

7.e) **Konpentsatzeko debekua:** Erosleak ezingo du ordaindu beharreko zenbatekotik inolako kantitaterik kendu, ez erreklamazioengatik, ez atzerapenengatik, ez produktua ez entregatzeagatik, ez garraioarengatik, ez kalitatearengatik, ez eta beste edozein arrazoirengatik, Hornitzaileak konpentsazio hori onartzen duela idatziz adierazi ez badu.

7.f) EROSLEAK epemugara heldutako fakturak eta galdagarri diren fakturak ordaintzen ez baditu, eta ordaintzeko HIRU aldiz errekeritu bazaio, HORNITZAILEAK kontratua deuseztatu eta bidean dauden eskariak eten edo mugatu ahal izango ditu, EROSLEAK ordaintzeke dituen zenbateko guztiak ordaindu arte. Horretaz aparte, HORNITZAILEA ordaindu ez dizkioten zenbateko horiek eskuratzeko egin ahal dituen beste ekintza judizialez baliatu ahal izango da.

7.g) **Domeinu erreserba:** Salmentaren helburu diren ondasunak HORNITZAILEAREN jabetzakoak izango dira eta berarenak baino ez, EROSLEAK ondasun horien zenbatekoa osorik ordaindu arte. Ondasunak osorik edo zati batean ordaintzen ez baditu, EROSLEAK hitz ematen du salerosketaren helburu diren ondasunak ez zergapetzeko eta HORNITZAILEAK produktua itzultzeko betekizunak betetzeko, gastu guztien bere gain hartuta (balio galera, gastu logistikoak, eta aduanak, kasuan kasu).

ZORTZIGARRENA.- OSAGAIEN GARAPENA ETA ALDAKETA EDOTA EGUNERAKETA.

HORNITZAILEA da berak saldu edota merkaturatzen dituen produktuen diseinuen jabea. Horren ondorioz, produktu horietan nahi dituen aldaketak egin ahal izango ditu EROSLEAREN berariazko baimenik gabe, beti ere aldaketekin produktuen funtzionaltasuna eta kalitatea kaltetzen ez badira.

Etxetresna elektrikoetan erabili ahal daitezen eta produktuaren zehaztapen teknikoak bete ahal ditzaten produktu horiei aplikatu ahal zaizkien araudietan ezarritakoarekin bat etorri beharko dute beti aldaketa horiek.

BEDERATZIGARRENA.- SALGAIEN HORNIKETA, SALMENTA ETA SALGAI ZAHARKITUEN ERANTZUKIZUNA.

9.a) HORNITZAILEAK Salmentaren edo Horniketaren helburu diren produktuen entrega epeen berri emango dio EROSLEARI. Entrega epea HORNITZAILEAK eskaria jaso eta bere lan egutegian araberako hurrengo lan egunetik hasiko da zenbatzen.

9.b) Behin HORNITZAILEAK eskari jaso, EROSLEAK ezingo du eskariaren edukia baliogabetu ez eta aldatu ere, HORNITZAILEAK hori onartzen duela berariaz adierazi ezean.

9.c) Aldian-aldian egiten diren horniketen kasuan, EROSLEAK eskariak egiteko araututako sistema informatizatu bat erabiliko balu (WEB bidez, EDI, emailak, Excel fitxategiak, etab.), aurreikuspenak

eta entrega baieztapenen gaineko informazioarekin (call off), EROSLEAK honako erantzukizunak izango lituzke:

- HORNITZAILEAK aurreikuspenen gaineko informazioa erabiliko du materialak stockean edukitzeko eta salgaiak fabrikatzeko.
- HORNITZAILEAK itxitako eskariaren gaineko informazioa, entregaren baieztapena edo call offa erabiliko du, merkantziaren bidalketa egiteko.
- Erosleak ondasunen bat ez erabiltzea edo gutxiago kontsumitzea erabakiko balu, edo ondasun horren ordez beste bat erabiltzea erabakiko balu, idatziz jakinarazi beharko lioke HORNITZAILEARI, HAMABI LAN ASTEKO aurrerapenez.

Aurreko puntuan ezarritakoa beteko ez balitz, HORNITZAILEAK stockean dituen ondasunak bukatzeko behar besteko eskariei dagokien zenbatekoa edo saldu beharreko ondasunak egiteko erabiliko zituen lehengai espezifikoak txatarra bihurtzearen baliokidea den konpentsazio ekonomikoa erreklamatu ahal izango lioke EROSLEARI.

9.d) Garraioa HORNITZAILEAREN kontura izatea erabakiko balitz, garraiorik merkeena kontratatuko litzateke.

Edozein arrazoi dela eta, garraioa lehenbailehen egitea beharrezkoa balitz, kasu horretan garraioa EROSLEAREN kontura eta ardurapean izango litzateke.

HAMARGARRENA.- HORNITZAILEAREN ERANTZUKIZUNA.

10.A HORNITZAILEARI egotzi ahal zaizkion arrazoiak direla eta, entrega epeak beteko ez balira, EROSLEAK atzerapenez hornitutako gaiaren balioaren %0,15 eskatu ahal izango lioke gehienez HORNITZAILEARI kalte-ordain gisa, atzeratutako aste bakoitzeko, Hornitzaileak baieztatutako egunetik aste bete pasatuta gero zenbatzen hasita. Penalizazio hau ezingo da inolaz ere atzeratutako merkantziaren balioaren %3 baino gehiago izan, atzerapenak eragindako kalte eta galerak barne.

10.b Edozein arrazoi dela eta, HORNITZAILEARI egotzi ahal zaizkion eta kalte-ordainen bat eskuratzeko eskubidea ematen duten kontzeptu guztiengatik HORNITZAILEAK gehienez %3ko kalte-ordaina emango du, beste edozein kalte-ordain eskuratu ezingo delarik, honako hauek oinarri hartuta:

- Salduta dauden eta erreklamaturik dauden artikulu espezifiko guztien salmentak eta, Gehienez urtebeterako (1 urte).

10.c HORNITZAILEAK ez du inolaz ere galera ekonomikoengatik erantzungo, ez eta irabazien galerengatik eta EROSLEAK egin behar izan dituen zeharkako gastuengatik ere.

10.d) HORNITZAILEAREN iritziz, salmentaren helburu diren produktuek erabiltzaileentzat arriskutsua izan daitekeen akatsen bat izango balute eta jada merkantzia EROSLEAREN esku egongo balitz, HORNITZAILEA behartuta egongo litzateke jarduketa osagarri bat egitera. Jarrduketa hori HORNITZAILEAK berak nahi duena izango da, eta materialen aldaketak, lan eskuak, enbalajeak eta garraioak eragindako kostuak bere kontura izango lirateke.

Kasu horietan HORNITZAILEAK antzemandako akatsa kendu, kaltetutako materiala aukeratu edo, bestela, Erosleari akatsik gabeko osagaiak eman ahal izango dizkio.

HAMAIKAGARRENA.- BERMEA.

11.a) HORNITZAILEAK bere produktuek denbora batean akatsik ez dutela izango bermatzen du, ez diseinuan, ez erabilitako materialetan ez eta fabrikazioko prozesuan ere, aurrerago adierazten diren salbuespenekin.

11.b) Bermea Erosleak merkantzia jasotzen duen unean hasi eta 12 hilabetetan egongo da indarrean. EROSLEAK produktuan antzemandako arazoak jakinarazi behar dizkio HORNITZAILEARI akatsak dituela konturatu eta 15 eguneko epean.

11.c) Bermea indarrean dagoen bitartean, HORNITZAILEAK, EROSLEAK akasduntzat jotako produktuak aukeratu ondoren, produktu horiek konpondu, ordeztu edo aldatu egingo ditu, berak ere akasduntzat jotzen baditu eta produktuek dagokion funtzionalitatea galdu badute edo aplikatu behar zaizkien arauak edo bete behar dituzten zehaztapen teknikoak betetzen ez badituzte. EROSLEAK, berriz, ez du kate-ordain gehiago jasotzeko eskubiderik izango.

Aurreko paragrafoan jasotako irtenbideetatik zein aukeratu, HORNITZAILEARI baino ez dagokio.

Klausula honen arabera akatsa duen produktua aldatuko balitz, produktu akasduna HORNITZAILEAREN esku geldituko litzateke.

11.d) Honakoak geldituko dira berme honen kanpoan:

- Higadura naturalez, arduragabe manipulatzegatik, segurtasun arauak edo arau teknikoak ezartzen dutenaren aurka erabiltzegatik, gutxi zaintzegatik eta Eroslearen edozein arduragabekeriagatik kaltetzen diren produktuak.
- Erosleak produktua gaizki manipulatu edota gaizki muntatu edo instalatzegatik gertatzen diren akatsak edota hutsak, edo HORNITZAILEAK idatziz onartu gabe egiten diren aldaketek edota konponketek eragindakoak.
- Erosleak erabilitako material, fluido, energia edo zerbitzuek eragindako akatsak, edo erosleak ezarritako diseinu baten ondorioz gertatutakoak.
- Ustekabean, halabeharrez (fenomeno atmosferikoak edo geologikoak) gertatutako matxurak eta kalteak, edo bestelako hondamendi naturalek eragindakoak.
- Oro har, zeharkako kalte guztiak, horien ondorioak edota kalte kolateralak.

HAMABIGARRENA.- HORNITZAILEA DAGOKION ERANTZUKIZUNETIK SALBUESTEKO ARRAZOIAK

12.a) HORNITZAILEAK ez du erreklamaziorik onartuko galera, kalte edo hitzarmen honetan jasotako beste edozein erreklamaziorengatik, berariaz eta idatziz onartuta ez badago.

12.b) Hornitzaileak ez du erantzungo EROSLEAK produktua behar bezala manipulatu, instalatu eta kontserbatu ez duelako merkantzian hutsak edo akatsak sortzen badira.

12.c) HORNITZAILEAK ez du inolaz ere erantzungo EROSLEAK hirugarrenei eragindako kalte eta galerengatik.

12.d) Hornitzaileak ez du erantzungo produktuak dituen akatsengatik eta galerengatik, produktuak funtzionala eta HORNITZAILEAK aurreikusitako erabilerarako egokia izaten jarraitzen badu eta produktuaren zehaztapen teknikoekin bat badator.

12.e) HORNITZAILEAK ez du inolaz ere erantzungo hornitutako produktuak dituen akatsengatik EROSLEAK diru galerak, ondarean kalteak edo irabazi gutxiago baditu, edo hari eragiten dion kaltearengatik.

12.f) Erosleak bere gain hartzen du oso-osorik HORNITZAILEAREN osagaien onarpena, bere etxetresna elektrikoen muntaketarako eta manipulazio eta muntaketa prozesuetarako egokitzat jotzeari dagokionean. Era berean, Eroslearen ardura izango da edozein akats ahalik eta lasterren detektatzen lagunduko duten kontrol eta kalitate bitartekoak ezartzea, bai eta Hornitzaileak saldutako osagaiak bere etxetresna elektrikoetan egiten duten bideari eustea ere, osagaietan arazorik egonez gero zein osagai gerta zitekeen kaltetuta identifikatu ahal izateko.

HAMAHIRUGARRENA.- SALMENTA EDO HORNIKETA UKATZEA.

Honako kasu hauetan hornitzaileak ezetz esan ahal izango dio Erosleak egindako eskariak zerbitzatzeari, hornitzeke dauden produktuak hornitzeari edo eskari berriei erantzuteari:

13.a) Baldintza hauetan ezarritakoaren arabera Erosleak bere gain hartu dituen betebeharrak betetzen ez dituenean.

13.b) Konkurtso, porrot edo ordainketen etendura dela eta, hasitako edozein prozeduraren izapideketa onartzen duenean.

HAMALAU GARRENA.- JAKINARAZPENAK.

Hornitzaileak hitz ematen du Salmetarako eta Horniketarako baldintza hauek Eroslearentzat ikusgai eta eskuragai jarriko dituela, bai eta formatu elektronikoko bidez bidaliko dizkiola ere, eskariak egiterakoan baldintzen jakinaren gainean dagoela ziurtatzeko.

HAMBOSGARRENA.- LEGERIA APLIKAGARRIA.

Eragiketa komertzialetan alde bien artea gertatu ahal den edozein auzi Baldintza hauetan xedatutakoaren menpe egongo da, eta, bertan jasota ez dagoena, Merkataritzako Kodeak, lege bereziek eta Espainiako zuzenbidearen merkataritzako erabilerek ezarritakoaren menpe.

HAMASEIGARRENA.- JURISDIKZIOA.

Kontratu honen interpretazioan edo exekuzioan desadostasunik egongo balitz, edo kontratuaren babespean halakorik gertatuz gero, alde biak Bergarako (Gipuzkoa, Espainia) Epaitegien menpe jarriko dira, dagokien beste edozein eskumen baztertuz.

HAMAZAZPIGARRENA.- ESPAINIERAZKO BERTSIOAREN LEHENTASUNA

Hitzarmen honen bertsio bien interpretazioan desadostasunik balego, espaineraz idatzitakoak izango luke lehentasuna, alde biek hala erabakita

HEMEZORTZIGARRENA.- KLAUSULA GEHIGARRIA

Jurisdikzioan eskumena duen auzitegi batek Baldintza Orokor hauetako edozein xedapen legearen aurkakoa, baliogabea edo exekutaezina dela joko balu, xedapen hori baino ez litatzeke indar gabe geldituko; gainontzeko xedapenek indarrean eta ondorio guztiekin jarraituko lukete.